




ARATOSTEEN sustraiei helduta

50
KRISTAL
GAURATAN



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Antonio Murillo
doktorea

PERIODONTZIA
INPLANTOLOGIA
AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta
doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA
PROTESIAK
ESTETIKA

Susana Sierra
doktorea

ORTODONTZIA
OKLUSIOA



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52


www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu itzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidor Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidor Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Peter Milne

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

INBRISKA.- Erauntsia, euri handia. "Haize, txingor eta inbriska artera, betiko zuregaz bizi izatera".**INDAR.-** Argindarra, elektrizitatea. "-Hi, plaentxi, Plaentxian zelan zabizie indarrakin? -Indarrakin ondo, indar barik gaizki".**INDARRETXE.-** Zentral elektrikoa. "Saturixoko indarretxian azelin barrixa ipiñi dabe".

ESKUTITZAK

EIBAR DESBERDIN BATEN ALDE

Gipuzkoa desberdin baten alde. Jendarte-eredu desberdin baten alde. Norabidea aldatzearen alde. Informazioa, eztabaida eta erabakia oinarri izango dituen demokrazia parte-hartzailearen alde. Urtetan zehar azpiegitura handien aurka borrokan jardun duten herri-mugimenduek bat egin eta Gipuzkoaren etorkizunaren aldeko dinamika abiarazi dute. Ezker abertzaleak, bere eremu eta eragin guneetatik bat egiten du norabide horretan.

Urteetako apartheid politikoa instituzionala iraultzeko garaia da. Gipuzkoarron multzo handi batek hala exijituta, herrialdeko erakundeak balaztari ematen hasiak dira. Hor ditugu hondakinen inguruan ireki berri den hausnarketa-epaia, Jaizkibelgo Superportuarekiko aurkakotasuna, Abiadura Handiko Trena eraikitzeko erabakia herritarron nahi eta iritzia ginetik ezarri izana salatzea...

Azken urteotan Gipuzkoaren jendartearen nahiak eta beharrak kontuan hartu gabe diseinaturiko makro-azpiegituren fase-amaieran gaude. Gipuzkoar guztiak dagozkien erabakiak bulego itxi batean hartzen ziren garaia pasatu dira. Diru publikoaren xahuketan oinarritutako eredu ekonomiko jakin hori agortuta dago. Obra publikoen aurrekontuetan %65a arteko desfaseak onartzen ziren garaia iragan beltza dira Gipuzkoan.

Politika egiteko modu jakin horren amaieran gaude eta orain amaiera guztiak dakarten hasera dago marraztea. Eibar osatzen dugun herritarron neurria eginiko

eraldaketak bultzatu behar ditugu. Tokian-tokiko administrazio publikoetatik, herri txiki, ertain eta landa eremuak babestu eta indartu behar ditugu. Espainia berteratzeko apustua egiten duen AHT bezalako azpiegituren ginetik, eskualdeen arteko komunikazio bideak bultzatu behar ditugu.

Azken finean, jendarte -eta ekonomia- eredu ulertzeko moduak daude jokoan: herritarron diru eta baliabideak erabiliz gutxi batzuen interesak defendatzen dituen eredu, alde batetik, eta baliabide publikoak herritarron behar errealetera bideratzeko gardentasuna eta partaidetza oinarri dituen eredu, bestetik. Ezker Abertzalean azken honen alde egiten dugu eta hori da, hain zuzen ere, erakundeetan eta kalean bultzatzen ari garen eredu.

Euskal Herriaren paisaia irensten hasia den azpiegitura erraldoi horri ezetz oihukatzen diogu, AHTr ezetz! langileen lan baldintza negargarriak tarteko, heriotzak bultzatu dituen azpiegitura horri ez oihukatzen diogu. "Ez" asko oihukatzeraz gatoz. **Bai** erraldoi bat osatzera bidenabar ere. Eibarren bizitzen dugunon **Bai** ahots asko entzungo direlako, aurrera begirako **Eibar desberdin baten alde**.

Hala, esan dezagun otsailaren 4an, Donostian irtingo den manifestazioan "Gipuzkoa desberdin baten alde, jendarte eredu aldatu!".

MARIANO LUKE

asteka

HEMEROTEKA


esaldiak

"Katmandun izan garenean pelikula egiten konturatu naiz oso kultura desberdina dugula. Ingelesez bera egiten genuenean, hori da-eta hizkuntza frankoa, zu gauza batez diharduzunean eurak beste bati buruz ari dira. Gure ikonografia, bai heziketarik eta bai kulturalki, hain desberdina izanda, eurak eta geuk berdina esanda ere, errealiitatean gauza ezberdinen inguruan dihardugu. Mestizaia horregatik da hain zaila, Erdi Aroan bizi direla eta inoiz ez direla aldatuko esatea gehiegizkoa bada ere"

(Iciar Bollaín, zine zuzendaria)

"Haurrak pentsatzen duten izaki moduan tratatu behar dira. Eta helduekin, hemen eta munduan nola agertzen ari diren ikusita, onena da esatea: hil dadila jakin gabe! Txistean moduan: 'Bi ume amonari galdezka: Amona, nondik datoz haurtxoak? Eta amonak erantzun: Zikoinak ekartzen ditu. Eta bigarrenez ere berdin: Ez amona: benetan, nondik datoz? Eta hark berriz: Zikoinak mokoan umea. Azkenean haur batek besteari esaten dio: Alferrik da; hil dadila jakin gabe'"

(Lolo Rico, 'La bola de cristal' programaren zuzendaria izandakoa)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldirakaria

asteko

28.000

datua

euro gastatzen ditue, gehixen jota, 18 bat jardinetako lorak barriztazen. Urtian loratutako 1.400 zotal erosten dira eta hortik sasoi bittan banatutako 16.000 lora ataratzten ditue.

Biohondakiñak batzeko materixala banatzen dihardue

DEBABARRENAKO MANKO-MUNIDADIA HASITTA DAGO BIOHONDAKIÑEN GAIKAKO BILKETA BARRIXAN parte hartzeko materixalak (edukiontzixa zabaltzeko giltza, kubua, poltsa konpostagarriak eta informaziño orrixa) izena emon dabenen artian banatzen. Horrekin batera, banatutako materixalaren erabilleraren inguruko zalantzak argitzeko teknikarixak etxerik etxe pasatzen dihardu. Etxian harrapatzen ez dituenak teknikarixari Portale-



an konsulta egitteko aukeria izango dabe, hala nahi izanez gero, egun eta ordutegi honetan: otsaillak 22, 23 eta 24an 11.00etatik 13.30xetara eta 16.30xetatik 20.00etara eta otsaillak 25ian 10.00etatik 13.00etara.

EJE azokia udaletxeko arkupietan

ARMERIXA ESKOLIAREN MENDEURRENA DALA-ETA, EJE EUSKADIKO ENPRESA AZOKIA lehelengoz hartu eban gure herrixak eguaztenian, udaletxeko arkupietan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saillak Tknika bittartez koordinatzen dabene EJE programia Erdi eta Goi Maillako Heziketa Zikluetako ikaslari zuzenduta dago eta aurtengo ediziñuan Eibarko Udalaren laguntza jaso dau. Danera 73 enpresa orde-

katzen egon ziran 300 bat gazte alkartu zittuan goiz osuan martxan egon zan azokiak eta bakotxak bere produktuak salgai ipiñi zittuan. Tartian eibartarrak be egon ziran: Armerixa Eskolako ordezkariak eskuz egindako kamisetak (Noise) eta informatika-dispositibuak (TBS Technology) saltzen egon ziran eta salmentan lortutakuaren parte bat Egoaizia eta Alboan Gobernuaz Kanpoko Erakundieri emongo detse.

Izotzari eta edurrari aurre egitteko gertu


SIBERIATIK DATORREN DENBORALE-IRAGARPEN-RI JARRAITTUTA, eta egunotan eguraldixari lotuta agertu leikiazen arazuak saihesteko asmuarekin, Udalak horrelakueri aurre egitteko protokolua aktibau eban eguaztenian. Gixieneko tenperaturak -5 eta 0 bittartian ibilliko zirala alde zurretik jakinda, atzotik udaltzaiñak gatza botatzen dihardue izotz-plakak sarrixen sortzen



Bidiak garbitzeko makiña bi preparauta dakaz Udalak: bata kalerako, bestia mendirako.

diran tokixetan eta baita jubilau etxe, eskola, haurreskola eta horrelakuen inguruan. Edurra botaz gero, bestalde, erre-

pidietako edurra garbitzeko makiña bi prest dagoz, bat herri barrurako eta bestia mendi inguruetarako.



Autobus ordutegixak ipiñiko ditue geralekuetan

DEBABARRENAK GARRAIO PUBLIKUAREN ERABILLE-RIA SUSTATZEKO ASMUARI JARRAITTUTA, eskualdeko 8 udalak eta Debegesak garraio publikuaren mapia osatu dabe eta bertan ordutegixak eta linea ezberdiñen gaiñeko informaziño eguneratua eskinduko jakue herrittareri. Ekimena Debabarreneko Mugikortasun Mahaixaren proposamenari jarraituta ipiñi dabe martxan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saillaren laguntasunare-

kin eta mapan agertzen dan informaziñua Gipuzkoako Garraiuaren Lurralde Agintaritzak emon dau argittara. Nahi dabenek, www.debegesa.com helbidian mapia deskargatzeko aukeria daka eta Pegoran edo Debegesan be eskatu leike. Horrekin batera, eskualdeko geraleku nagusixetan be informaziño-taulak jarriko ditue: Eibarren, Armerixa Eskola parian, Bidebarrietan, Egogain 1ean, Egogain 2xan eta Urkizun ipiñiko ditue.



Hasi dira Armerixako mendeurrena ospatzen

EGUEN ARRATSALDIAN ARMERIXA ESKOLAKO ARETUAK HARTU EBAN EKITALDIXAREKIN hasi ziran modu ofizialian eskolia sortu zala 100 urte betetzen dirala-eta antolatutako ospakizunak. Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Eibar etainguruko udaletako ordezkariarekin batera, enpresa munduari eta eskoliaren ibilbidiari lotutako lagun asko batu ziran ekitaldixan eta bertan emon eben ezagutzera mendeurrenaren harira antolatuako kartel lehiaketako irabazlea: Unai Arriaga eibartarraren "100" izenburuko nagusitu da lehiaketara presentatu zittuen 124 lanen artian.

Unai Arriaga eibartarraren irudixa erabilliko dabe mendeurrenaren ekitaldixetan.



a u t u a n

GALIZIAKO ETXIA

Galiziako Etxekuak domekan egindako asanblean datozen urte bittan Albino Vieites presidentia izatia erabagi eben. Zuzendaritza taldea, A. Cid, M. Colmenero, D. Reguilón, I. Unzeta-barrenetxea, T. Rodríguez, J.I. Luque, J. Gutiérrez, M. Araujo, S. Romero, S. Mosquera, B. Nieto, M. Borreguero, M. Cid, A. Fernández, J. Pato, J. García eta J. Augustok osatuko dabe.

HITZALDIXA AL-ANONEN

Alkoholarekin arazuak dituenen famelixa eta lagunen Eibarko Al-Anon alkartiak 34 urte bete ditte eta bixarko hitzaldixa antolatu dabe, nahi dabenez guztiak informaziñua jaso deitan. Arrate taldekuak antolatutako hitzaldixa alkarteko kidiak eta psikiatra batek emongo dabe, 18.00etan, San Andres elizako lokaletako batian. Astero birritan batzen dira Al-Anonekuak. Informaziño gehixago: 650265963 telefono zenbakixan.

Lapurtutako umien inguruko adierazpena

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGUAN 50-EKO HAMAR-KADATIK 90-EKO HAMAR-KADARA BITTARTIAN jaixo-

barrixen adopziño irregularrak egon ziran susmua gero eta gehixago zabaltzen hasi da eta badirudi auzi horretan Gipuz-

kuako 20 ospital inplikauta egon zirala. Horren harira, SOS Bébes Robados-Euskadi alkartekuak Eibarko udalarekin hartuemonetan ibilli dira, alkartasun eta babes billa eta eskariari erantzuna emon detse aste honetan bertan, auziaren gaiñeko adierazpen instituzionala eginda. Udalak "alkartasun osua" adieraztiarekin batera, "euskal erakunde guztieri eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari aittatutako alkartiak eskatzen dabenez egixa-eskubidia bermatzeko euren esku dituen neuri guztiak hartzeko" eskatzen detse idatzixan.



Irregulartasun batzuk tartian, ume jaixobarri asko adopziño ilegaletan emon ziran.

Aurrekontuari zuzenketak egin detsaz Bilduk

EIBARKO BILDUK AURREKO BARIXAKUAN EMON ZITTUAN EZAGUTZERA EGUN GITXI BARRU UDALBATZAN BOTAZIÑORAKO presentauko dan aurrekontuari egin detsazen zuzenketak, 34 partzial eta osoko beste bat. Bildukuen berbetan, "bates be udal zerbitzuen externalizaziñuan eta alderdi politikuen estrukturiari eusteko gastuetan, arlo bi horretan dirua aurreratzeko proposamenak aurkeztu ditugu, hor aurreztutakuarekin herritarreri eskindutako zerbitzuak

eta bizitza-kalidadia hobetzera bideratutako beste proposamen batzurekin batera". Bildukuek proposatzen dabenezekin "987.105 euro aurreratu" leikezela diñue. Halanda be, agerraldixaren aurretik PSE-EE-ko ordezkari batekin billeria euki eta gero "atsekabetuta" eguazela azaldu eben: "Zuzenketa guztiak banan-banan atzera bota ditte ordu laurdenian amaittu dogu billeria". Zuzenketa eta proposamenak osorik irakortzeko bildu.info/eibar/ helbidera jo leike.



FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

(Ramon Agirregomezkortaren alarguna)

2012ko urtarrilaren 29an hil zen, 81 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Bihar, bosgarren urtez jarraian, Aratosteen aurrerapena ekarriko digute Kezka dantza taldekoek koko-marruen kalejirarekin. Aurten, gainera, eibartarrek Italiatik, Rocca Grimaldatik etorritako taldearen laguntza izango dute. Euren eskutik La Lacheran ospatzen duten inauteriaren zati bat bertatik bertara, herritik alde egin barik jasotzeko aukera paregabea izango dugu.

Koko-dantzek Italiako Aratosteak gerturatuko ditizkigute aurten

Goizean goiz, 08.30-etan egingo dute lehenengo agerraldia koko-dantzariak Merkatu Plazan, bertan dauden baserriar eta gainontzeko guztientzat eta hango erakustaldia amaituta, 09.00ak aldera ekingo diote baserrikeri baserriko kuestazionarioari. Aurreko lau urteotako kalejiretan Elbarko baserri-auzo

guztien itzulia osatu eta gero, aurten buelta berria hasiko dute koko-dantzari eta koko-marruek, atzera ere Arrate-balletik hasita. Kalejira 16.00ak aldera amaitzea espero dute eta, atsedean piskat hartu ondoren, 19.00etan herri barruan beste erakustaldi bat eskainiko dute, kalejiran: koko-dantzak eta Rocca Grimaldako La La-

Aratosteetarako lehiaketak martxan

AURREKO ASTEAN AUKERATU ZUTEN ARATOSTEETARAKO KARTELA, baina oraindik ere Aratosteekin lotutako hainbat lehiaketatan parte hartzeko aukera badago. **Aratosteetan dotoreen jarrirako taberna** aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko azken eguna otsailaren 16a izango da (Pegoran) eta epaimahaiko kideak, berriz, hurrengo egunean, hilaren 17an pasatuko dira izena eman duten tabernak ikustera, ondoren dotoreena aukeratzeko. Bestalde, **umeentzat Aratosteen inguruko marrazki lehiaketa** antolatuta dute Errebal, Ibarakurutz, Estaziño, Arragueta eta San Agustin kaleetako dendarri eta tabernariak. Maila bi bereiziko dituzte, adinaren arabera: bat 8 urtera artekoentzat eta beste bat 9-14 urte bitartekoentzat, eta maila bakoitzeko irabazleari 100 euroko balioa duen erosketa-txartela emango diote. Marrazkiak otsailaren 13ra bitartean jasoko dituzte denda zein tabernetan eta entregatu diren tokian ikusgai egongo dira. Irabazleei saria, berriz, otsailaren 14an emango diete. Arrate Kultur Elkarteak ere, urteroko moduan, **Eguen Zuri argazki lehiaketa** antolatuta dute. Zaletu guztientzat zabalik izango den lehiaketarako gaia Aratosteak izango da eta lanak aurkezteko epea martxoaren 20an itxiko dute. Informazio gehiagorako 943202299 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Eta El Corte Inglés-ak 4 eta 12 urte bitarteko **umeentzat koko-jantzi lehiaketa** antolatuta du hilaren 11rako: 18.00etan merkataritza zentruko aretoan hasiko den lehiaketan parte hartu nahi dutenek dendako beheko solairuan dagoen liburudendan eman beharko dute izena.



Rocca Grimaldatik etorritako taldearen laguntza izango dute aurten koko-dantzek.

Eibarko koko-dantzak Piamonten izango dira hurrengo asteburuko domekan / FELIPE LOIOLA



chera inauteria erakusteko dantzak Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga eta Fermín Calbetón kaleetan eskainiko dituzte, 21.00ak bitartean, Elgoibarko Mauxitxa txarangak lagunduta.

Eibar eta Rocca Grimalda artean 1.000 kilometro egon arren, Kezkakoen berbetan, "harrigarria da Aratoste bien artean dauden antzekotasunak ikustea. Europako Aratoste zaharren arrastoa antzeman daiteke La Lacheran, eta horrek bat egiten du Eibarko koko-dantzetan erakusten dugun Aratoste moietarekin".

Bihar arratsaldeko kalejirari ekin aurretik, 19.00etan anbulategiko parkean batuko dira koko-marruak, koko-dantza-

riak eta La Lacherako mozo-erroak eta Kezka dantza taldekoek gonbidapen zabala egin nahi diete herritar guztiei, euren bat egin eta kalejiran parte har dezaten: "Egin beharreko gauza bakarra koko-jantztea da, mozorrotzea, etxeko trapu zaharrak hartu eta inork ez ezagutzeko moduan jantzita. Hori egin eta ondo pasatzera etorri, besterik ez da egin behar".

Kezka dantza taldekoek, bestalde, italiarrei bisita bueltatuko diete otsailaren 12an: eibartarrek Piamonteko eskualderaino eramango dituzte Eibarko koko-dantzak hurrengo asteburuko domekan, Rocca Grimaldan orduan egingo den kalejiran parte hartuta.

Eusko Jaurlaritzak 'arriskutsuak' diran kirol-ekintzak egiñ edo zuhurkerixa faltagaittik salbatzeko erreskatia bihar dabeneri kobratzia erabaki eban abenduan. Bestiak beste, surfa, urpekaritza, kasko barik mendiko bizikletan ibiltzia eta eskixa seguro barik egittia dagoz kirol horren artian.

Zelan ikusten dozu ERRESKATIENGAITTIK KOBATZIA?



AUREA BAHAMONDE
69 urte
etxeoandria

Ez dakitt zer esan. Begittantzen jata erreskatia egittia ezinbestekua bada, egin biharko zala, kobrau barik, bihar-biharrezkua dalako. Jendiaren bizitza egongo zan-eta hor jokuan, orduan erreskatia ez neban kobrauko.




ANTON ALDALUR
56 urte
eskolako atezaiña

Zerbitzu publikua izan biharko zan. Bestela negligentzia danengaittik kobratu biharko zan: autuan bizkorregi juatiagaittik istripua daniari, edo autuan edanda doiazanak... Bestetik, istripua daganian ezin dira bestiak arriskuan ipiñi, pertsoniak ez dau beran bizitzia arriskatu bihar bestia salbatzeko.


MIKEL ZULUETA
27 urte
kirol monitoria

Usten dot mendixan federauta bazabiz ez detsuela kobratzen. Kasuaren arabera izan biharko zan. Zuhurtziagabekerixa batengaittik erreskatatzen bazaittue, logikua da kobratzia. Bixar demaseko elurra egingo dabela anunziauta badago, Anbotora juan eta zeezer pasatzen bajata, kobratzia.



AMAIA JAI0
28 urte
ikaslia

Txarto ikusten dot kobratzia. Bizitza salbatziaz gabiz berbetan eta horregaittik kobratzia pertsonen kontra juatia dala begittantzen jata. Egon leikez aldiak federauta daguazen eta ez daguazenen artian, baiña erreskatiagaittik kobratzia ez dot ondo ikusten.



Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

EGOITZA NAGUSIA
Dibaberrito 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Erreusketak labea

Egoibonen (Signo poligonozko)

Partikular, mutua eta aseguru eterei zerbitzuak

Koroak - Eskelak - Uteuzenako eskelak

Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen dituzte

Nazio eta Nazioarteko trilogioak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Miguel de los Toyos alkatiak aurreko barixakuan emon zittuan billeren gaineko azalpenak eta berak esandakuaren arabera, "auzorik auzo egin dittugun billerak oso positibua" izan dira. Horregaitik, aurrerantzean be bide horretan biharren segiduko dabela eta urte honen amaiera aldiaren beste billererronda bat egiteko asmua dakela aurreratu eban.



Herritarren ahotsa AUZORIK AUZO jasotzen

Setienbre amaiera aldiaren hasi eta abendua bittartean 7 billera egin zittuen agintarixak (politikak, udal-tek-nikarixak eta udaltzaiñak), auzokidien ahotik zuzenian euren keja, proposamen eta bestelak-kuak entzun eta jasotzen juateko asmuarekin. Billerak herritarren aldetik interes haundia sortu dabe kasu guztietan eta juandakua kontatzen ibilli ez badira be, "bataz beste 900 bat lagun" jua dala kalkulatu dabe. Lehelengo billeria Amañako parrokiaren egiñ eben, iraillaren 28xan eta atzetik etorri ziran Legarrekua (urrixan 5ian), Urkikua (urrixan 18xan), Ipuruakua (urrixan 26xan), Beheko Tokixan egindakua (azaruan 9xan), Coliseokua (azaruan 22xan) eta Untzagako jubilaue txian egindakua (abenduan 14an).

Billera bakotxian esandakua idatziz jaso dittue eta horretxek guztiak autuan interesa daken herritarreri helarazi

nahi detsez oiñ. Horretarako, www.eibar.net udalaren web orrixan billeretako aktak irakorri eta jaisteko moduan ipiñi dittue eta, horrez gain, auzo bakotxian, ahal dala billeria egiñ eben tokixan bertan, akten kopixak inprimiduta lagako dira. Eta interneten ibiltzen ez diranak Pegoran akten kopixak eskuratzeko moduan aurkituko dittuela argitu nahi izan dabe. Orohar, akzesibildadiari lotutako kontuak izan dira auzo guztietan gehixen errepikatu diranak, "txakur eta kaleko katuen kakekin" lotutakuekin batera.

Herritarren billeretan jasotakua hiru hillerik behiñ eguneratzen juango dira eta, billerekin jarraitzeko asmua izanda be, argi laga nahi dabe "herritarrak edozein momentutan eta horretarako daguzen baliabidiak erabillita" udalari eu-

ren kezka eta proposamenak helarazteko aukeriak zabalik segitzen dabela.


Hiru multzotan sailkatuta

Billeretan esandakua eza-gutzera emotiarekin batera, ahal daben neurrixan konpondu biharrekuak konpontzen juateko konpromisuari eusteko asmua dakela esplika eban alkatiak: "Auzuetako billeretan planteau diranak kontuan hartuta, aktuaziñorako hiru bide aurreikusi dittugu. Batetik, gure esku daguzen baliabidiak erabillita konpondu leikiarenak bereiztuko gendukez, hau da, udal brigadako bihariñak konpontzeko moduko obra txixak. Honezker horretako batzuk konpontzen hasitta gagoz. Bestetik, konponbidiak inbersiño txikiren bat eskatzen dabena dagoz eta horretxek kon-

pontzeko aurtengo aurrekontuan partida bat aurreikusi dogu. Eta hirugarrenik ezertan hasi baiño lehen biabildade estudixua egittia eskatzen dabena dagoz. Kasu horretan be, estudixuak egiñ ahal izateko beste partida bat aurreikusi dogu". Aittatutako partidetak bakotxa 100.000 euruen buel-tan ibilliko da.

150 eta 300 euro bittarteko isunak

Herrixaren erdialdiaren bizi diranekin egindako billeraren urten ebenen artian, kalia txiza egi-tten dabenen inguruko keja eta kontenedorietatik kanpora kartoiak lagatzen dabenen kontrako besteren bat registrauta geratu ziran eta aste honetan bertan sartu dira indarrian horretxek konpontzeko neurrixak: kasu bixetan, baten bat aittatu-



M^a Luisa Ormaetxea Arrizabalaga-ren

heriotzaren 2. URTEURRENA

**GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.
MAITE ZAITUGU.**

Zure Familia

Eibar
2010eko otsailak 1



AUZUA	Proposamenak	Zerbitzuak	Alkatetza	Udaltzaingua	Hirigintza	Obrak	Bestiak
Behe-erdialdia	70	24	9	16	9	5	7
Erdialdia	68	23	8	25	9	2	1
Behealdia	69	28	4	9	7	13	8
Ipurua	63	26	9	16	3	9	0
Urki	62	28	0	16	5	8	5
Legarre	55	22	8	7	2	11	2
Amaña	36	16	3	3	2	12	2
DANERA	423	167	41	92	37	60	25
		(%39)	(%10)	(%22)	(%9)	(%14)	(%6)

Kuadro honetan ikusi leikez billera bakoitzean egindako proposamen kopurua eta zein arlotan daken eragiña.

tako kasu bixetako batian harripau ezkerro, isuna jasoko dabela emon dabe aditzera udaleko arduradunak. Isunak 150 euro eta 300 euro bittarte-kuak izango dira.

Untzagako jubilau etxian egindako billerian txiza kalia egittiare gaiñeko keja zuzen-zuzenian Calbeton kaliari lotutakua izan zan, hain zuzen be Txaltza Zelaira igotzeko eskillarretan etenbarik errepikatzen dan zeozer ei da. Halanda be, udaletik aditzera emon dabe-nez, herrixan badagoz arazo

berbera daken beste "punto baltz" batzuk, bestiak beste Mekolara igotzeko eskillararak, udaletzeko arkupiak eta Zezenbidera igotzeko aldapia. Lehenagotik be jokabide desegoki batzuk zigortzeko isunak aplikatzen dira gurian: urtia hasi danetik, txakur-kakak ez jasotziagaittik 4 salaketa eta graffitixak egittiarren beste 6 tramitau dittue udaltzaiñak.

Herrixaren erdialdian bizi diranak kezkatzen dittuen beste batzuk tabernetako jardunari lotutakuak dira, hala nola terrazak, jendiak batez be asteburuetan etaratzten daben zaratia... Eta horrekin batera, Alfa-San Andres inguruan errekiak botatzen daben kiratsarekin eta trenak Ardantza aldian etaratzten daben zaratiarekin keja ziran bizilagunak.

Behe-erdialdian bizi diranak bota zittuen kejen artian, barriz,

Aste honetan sartu da indarrian kontenedoretatik kanpora kartoiak lagatzarren izango diran isunak.

Irailetik abendura arte zazpi billera egin dira udal agintarixen eta auzokidien artian


bereziki aittatzekuak dira Errebalekin lotutakuak: merkatu plaza eraitsi aurretik herritarrekin konsultarik egiñ ete zan, bertan merkataritza gune barrixa egitteko eperik ete daguan, El Casco-ren eraikiña zertarako erabiliko dan eta holako galderak behin baiño gehixagotan entzun ziran reunixuan, auzo guztietan errepikatzen diran argiztapen, akzesibilidade eta bestelakuekin lotutakuekin batera.

Behealdeko kalietako bizilagunak, barriz, akzesibilidadia erabilli eben ahotan behiñ eta barriz eta hainbat toki konkreturako eskaera zuzen-zuzenak egiñ zittuen: Asua-Errekarako sarbidia bertan bizi diraneri eta garajietako jabieri zelatan geratuko dan esplikatzeko eskatu eben, proposamena meioratzeko aukerarik daken jakin deixen; Sautsi auzokuak bertako 5. pegoraraño eskillara edo aldapa mekanikua ipintzia nahi


dabe eta, horrekin batera, 5 urtetik beherako umiendako joko barrixak eta birziklatzeko kontenedore gehixago; Gisastu-Bide kalekuak be eskillararak edo igogaillua ipintzia nahi dabe, akzesua hobetzeko; eta Eguzki-Begin, barriz, hasarre dagoz trenbidiarekin lotutako biharra euren etxietarako akzesuak okerrera egittia eragin dabela eta oindiok be ez detselako konponbiderik emon. Autu honen gaiñian Udalak esandakuaren arabera, bertako akzesibilidade arazua konpontzeko 500.000 euroko inbersiñua eskatzen daben igogaillu bi biharra lirakez eta, horregaittik, denporaz aztertu biharra dabela aurreratu dabe.

Ipurua aldian jasotakuen zerrendan, kezka nagusiña kiroldegixa haunditzeko biharra eta mojak hutsik laga daben komentuak okupatzen daben terrenuaren etorkizunak osatzen dabe eta proposamenen artian, barriz, zezen-plaza eta Guardia Zibillaren kuartela aisialdixari lotutakuekin erabilitzekua be behin baiño gehixagotan aittatu zan.

Urki aldian zerbitzu arluari lotutako konponketak izan ziran protagonista nagusiñak eta gauza bera esan leike Legarre, Urki eta Amaña inguruan egindakuen gaiñian. Dana dala, eta alkatiak berak bota eban proposamenari jarraituta, billeretan esandakueri jarraipena egin nahi detsanak horretarako bidia zabalik daka, nahi daben moduan aktak eskuratu eta irakorritta.




ANGEL GALLASTEGI ARANBURU "TRIKI" (2012-I-25ean hil zen, Elgetan)



*"Udaberrian sortu eta / neguak eramandakoa /
Makiñatxo bat / ipuin eta txiste / barre eragindakoa /
Orain presaka / alde egiteko / etorri zaizu ordua /
Bakar eta triste / utzi gaituzu / Triki Aixola-Behekoa"*

**ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU
HURBILKETA ADIERAZI DIGUTEN GUZTIEI.**



TEEN-
AJEA

Bere bihotzeko taldearen hamaikakoa ematen du taldeak etxean jotzen duen bakoitzean eta gusto handiz egiten du, baina are gustorago kantatzen ditu taldearen golak. Eibar KE-en speakerra da Axel Riaño. Kolore gorriurdinak maite dituela nabari zaio eta bere ahotsa uzten du taldearen mesedetan.

AXEL RIAÑO, speak-erra:

“Igoeraren gola kantatzea demasa izango litzateke”

- Nola iritsi zinen Ipurua foball zelaiko mikrofonoa hartzera?

15 urterekin JD Arrateko speaker hasi nintzen. Bitxia izan zen: aurretik zegoena nahiko txepela zen eta beste zale bati esan nion “Hemen giro gehiago jarri beharko litzateke”, eta berak: “Trankil, laga nire esku”. Bolinaga presidentearengana jo zuen eta ondo iruditu zitzaion. Hasieran jokalarien izenak esaten nituen, baina gero golak kantatzen ere hasi nintzen. Eibar KE-koek bazekiten speaker-a nintzela eta Arrateri laguntzeko Eibar eta Errealak jokatu zuten neurketan hasi zen dena. Orduan, eurenak huts egiten zuenean, ni joaten nintzen. Aurten postua libre geratu zen eta deitu egin zidaten.

- Zaletasun kontua da?

Bai, hobbya. Batzuk esaten didate ea zergatik ez dudan kobratzen, baina nik taldeari ezin diot ezer eskatu. Gustatu egiten zait eta nire bihotzeko taldea da Eibar KE.

- Zein da speaker-aren lana?

Partiduaren hasieran hamai-kakoak esan, aldaketak jakinarazi eta golak abestu eta nork

sartu duen aipatu. Sirenari ere ematen diot goletan. Zozketaren zenbakia, autoren bat mugitu behar den eta halakoak...

- Zure bihotzeko taldea izanda, zaila da emozioak gordetzea?

Kabinan ederrak botatzen ditut bolumena kenduta dagoenean, baina bestela kontrolatu egiten naiz. Gertatu zait Mateo Guilabert kazetaria nire kabinara etortzea aldaketa baten ostean, bolumena piztuta lagatzea eta gu berrikerian. Ia ez zen ezer entzun eta ez genuen ezer txarrik esan, eskerrak!

- Ahots barik geratu zara noiz-bait partiduan?

Partiduan zehar. Azken minutuetan sartutako golen batekin geratu izan naiz ia arnasarik gabe.

- Aurten maila igotzeko Eibarren gola kantatuko duzula pentsatzen duzu?

Nahi bai. Mirandesen postuan egotea gustatuko litzaidake, baina poliki-poliki ba goaz gora: lehen lauen artean amaituko dugu. Igoeraren gola kantatzea demasa izango litzateke; seguru negar egingo nukeela, Rayoren kontra egin nuen moduan.

aldatze

www.aldatze.org

Otsaila bete-betea Indianokuan

Datozen egunotarako jarduera mordoa antolatu dituzte Indianokua gaztelekuan. Gaur bertan sanblas opilak egiteko sukaldaritza-tailerra eskainiko dute gaztelekuko sukaldean. Bihar eta etzi, berri, birziklapenaren ingurukoa emango dute. Hilaren 5, 11, 17, 18 eta 26rako "Play Wii" izenekoa antolatu dute. Martxan dagoen Makrolehiaketaren 3. eta 4. probak hilaren 10ean eta 24an jokatu dira, hurrenez hurren. Eta otsailerako programazioa birbiltzeko otsailaren 12an filme bat emango dute, 17an koko-jantzi lehiaketa egingo da, 18an eta 19an lip-dub bat grabatzuko dute eta 25ean kontsumo tailerra eskainiko da.

Antolatutako jardueretatik kanpo, gaztelekua egunero zabaltzen dute astelehene-tan izan ezik: martitzenetik egunera bitartean 18.00etatik 20.00etara, barixakuetan 16.30etatik 21.00etara, zapatuetan 17.00etatik 21.00etara eta domeka eta jai-egu-

netan 17.00etatik 20.30etara. Iaz, Aste Santu inguruan zabaldu zuten Muzategi kalean Indianokua gaztelekua eta, Udalak esku artean darabiltzan estatisten arabera, harrezkero hilerik hile bertara joaten diren gazteen kopuruak gora egin du. Zabalik dagoenetik 1.000 lagun hartu ditu gaztelekua, "gehienak 12-14 urteko nerabeak izan dira, baina udazkenetik hona 15-17 urte bitartekoak ere gutxika gutxika gehiago hurbiltzen hasi direla ikusi dugu. Bestalde, eta generoari begira, batez ere mutilak etortzen dira lokalera, baina azken hilabeteotan neska eta mutilen arteko aldea murrizten joan da eta abenduan, adibidez, 400 neska etorri ziren gaztelekura". Egunaren arabera gaztelekuan batutako kopurua aldatzen joaten da, baina orain arteko datuetan jasotakoari jarraituta maiatzaren 7an batu ziren gazte gehien Indianokuan, 141 lagun hain zuzen ere.



Antolatutako jardueretatik kanpo, gaztelekua egunero zabaltzen dute, astelehene-tan izan ezik. / EKHI BELAR



Lokalerok saioak familia bikoiztu nahi du!

Lokalerok saioak izandako arrakasta ikusita, ETB3k Lokalerok-en II. denboraldia udaberriaren estreinatuko duela aurreratu digute saioko arduradunek. Animatzen direnek lokalerok@eitb.com helbidera idatzi beharko dute lokalean zenbat lagun diren, euren adina eta

nongoak diren zehaztuta. Saiotik diotenez, "saioa oso informala da. Gure helburua gazteek gazteentzako egindako saioa egitea da. Konfiantza osoarekin, bakarrik gazteek nahi dutena grabatzen dugu eta ez dugu morbo edo horrelakorik nahi. Lokalen inguruan hedatuta dago-

en susmo txarra kendu nahi dugu". Gainera "ateak zabaltzeagatik sari potoloak" lortzeko aukera dago. Aurreko astean agurtu zuten lehiaketaren lehen edizioan Eibarko lokal bi ailegatu ziren finale-raino eta hurrengo edizioan ere eibartarrak parte hartzera animatu nahi dituzte.



La Salle
Eibar

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era
(biak barne)

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (D ereduak)
DBH (B eta D ereduak)

La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan

AURREMATRIKULA ZABALIK
2012-2013 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133
943 121 698
www.lasalleibar.com



Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAIA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hartz Klinika

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortz, konplexu eta konkritiko harrak... Hurdakako kontrol...

943 20 18 51

m bista eder



Infinarrak gazteku egiten gaitu

Inplante eta Hartz-Estetikaren adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

OSASUN



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua



hartz-klinika

B. IZAGIRRE

clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4.

Tel. 943 70 23 85



invisalign

Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa



Egungoan, 6. behekoa - Tel. - Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia



ANE MENDIA

970 Kolegiatu zbkia.


ARRAGUETA, 20

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Tel.: 943 53 06 42

ane_mendia@hotmail.com

Hemen zure tokia izan nahi baduzu



GGDA

Fisioterapia

FISIOTERAPIA
 ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA NEURO-ESTIMULAZIOA
 S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistikak

JOSE ALBERDI
 ARRATSALDEZ
 San Juan 11 - solainurtea
 943 20 19 82

Clínica Oftalmológica RECALDE
 Oftalmologi Klinika
 Plaza Barria, 2 - 2º
 Tfnoa: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzakal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 124 kolegiatu zenbakia
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
 943 12 14 93

Podologoak

PODOLOGOA
 Ereiko Klinika
 BIDEBARRIETA, 48 EIBAR 943 203050
 ERDIKO KALE 54 ARRASATE 943, 799746
 Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
 Maider Lopez Etxebarria
 Arragueta 2 Bis-B, Behea C
 Tfnoa. 943 82 04 88
 65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO T. ORTOPEDICO
 Iñaki Rivero Zabaleta
 Calbeton, 4 - 2. (Untzagako dorrea)
 Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
 PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
 BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
 Tel. 675 706 807
 Coro Ortíz de Urbina
 PSIKOLOGOA
 G201987 kolegiatua
 - Masterra Praktika Klinikoan
 - Patricioner P.N.L.
 - Master P.N.L.

Psikologoak

AROR
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
 (Ume eta helduendako)
 Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta
 - Afasiak - Dislexiak
 - Disfoniak - Hizmoteltasuna
 - Dislaliak - Eskola arazoak
 - Degluzio atipikoa
 T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
 Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA
 Arrate Garitaonandia
 HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK
 Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@hotmail.com

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
 Oscar Mondragon Lili
 Urkizu, 13 - behea
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA
 - Mamografiak
 - Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
 - Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)
 TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
 TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
 Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

deitu 943-206776 telefono zenbakira

Bengoetxea Laudioko pilota txapelketako finalean

JON BENGOETXEA KLUB DEPORTIBOKO PILOTARIA BESTE TORNEO BATEKO final batean izango da, otsailaren 10ean jokatuko den Laudioko txapelketakoan. Amantegi Abadiñoako aurrelaria lagun duela lortu du final horretarako sailkapena, aurreko barixakuan profesional-ohiek osatutako bikoteari irabazita. Alvarado arabarra (Frontisen jardundakoa) eta Matute III.a errioxarra (Aspen



Amantegi abadiñoarrak min hartu zuen finalerdian.

ibilitakoa) izan ziztuzten aurkari 75 minutu iraun zuen partiduan. 600 pilotakada inguruko partiduan, eibartarrak ondo baino hobeto zaindu zuen Amantegiren bizkarra, batez ere azken honek esku-mina nabaritu zuenetik aurrera.

Hierros Anetxe gero eta larriago partiduak irabazteko

SENIOR MAILAKO TALDEAK BESTE GARAIPEN BAT LORTU ZUEN ELIZONDON BAZTAN-I 10-11 irabazita. Aurreko jardunaldian galdu eta gero, oraingoan azken minutura itxaron behar izan zuten eibartarrak zigor kolpe baten ondorioz garaipena eskuratzeko. Hiru jardunaldi besterik ez dira geratzen liga amaitzeko eta dena alde dute Isasaren mutilek Ohorezko B mailara igotzeko playoffetan parte hartzeko; hala ere, ligaren bigarren itzuli honetan badirudi joko intentsitatea jaitxi dutela eibartarrak. Bihar beste urrats bat egin dezakete aipatutako helburua lortzeko, Gernika B multzo azkena jasoko baitute Unben, 16.00etatik aurrera.



Errugbiko harrobia basatzen ere gertu

AIETEKO ZELAI LOKAZTUAN JOKATUTAKO PARTIDU BIAK IRABAZI ZITUEN Eibar Rugby Taldeare infantil mailako taldeak (Albizu, Astarloa, Bergara, Fernández, Gómez, Iriondo eta Zerpa). Domekan, bestalde, Unben egindako konzentrazioan alebin eta benjamin mailetakoko ehundik gora neska-mutil izan ziren.

Tekniker Eibar Eskubaloiak Euskal Ligan jokatuko du

KADETE MAILAKO ESKUBALOI TALDEAK 43-19 IRABAZI ZION ESKOLAPIOSI Euskal Ligarako igoera fasean eta, datorren astetik aurrera, maila horretan jokatuko dute Espainiako Txapelketako sektorean jokatuzeko helburuarekin.

Gipuzkoako Lurraldeko 2. mailan jokatzen duen Somos Eibar Eskubaloia talde nagusiak, bestalde, bere ibilbide ezin zuzenagoarekin jarraitzen du eta, azken jardunaldian ere, 43-15 nagusitu zaio Saiekori. Imanol Alvarezen mutilek ikaragarriko erregistroak dihardute markatzen: horrela, partidu guztiak erraz irabazteaz gain, talde goleatzaileena da Eibarkoa, hurrengoari 126 gol aterata, eta baita gol gutxien jaso duena, hurrengoak baino 125 gutxiago.



Iruñeko torneoan Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuten Eibar Eskubaloi harrobiko lau jokalariek.

Eibar-Alavés neurketa garrantzitsua Del Olmoren bueltarekin

BIHAR ARRATSALDEAN ETB-1EK ZUZENEAN EMANGO DUEN PARTIDUAN, neurtuko dituzte indarrak Eibarrek eta Alavés-ek lehen lauren artean sartzeko borrokaren barruan. Talde biak berdinduta daude sailkapenean eta Manixen mutilak mendekua



hartzeko prest egongo dira, Mendizorrotzan lehen itzulian 2-1 galdu eta gero. Martitzenean itxi zen neguko merkatuan, bestalde, Eibar KE-k Joseba del Olmo aurrelaria fitxatu du denboraldi honetarako eta hurrengorako; aurrelariak lehen ere jokatu zuen Eibarren, Athletic-era joan aurretik. Eta Villarreal B-tik dator taldea indartzera Ortega laterala.

Aieten jokatu zuen taldea.



Christian Lassalle eibartarra Euskadiko taekwondo taldean



Christian Lassalle, Ezequiel Salmonte eta Mariano Cerdáekin, irabazitako sariak eskuan.

CASTELLONGO MORELLA HERRIAN JOKATUTAKO GERRIKO BELTZEN LEHENENGO TORNEOAN, Christian Diego Lassalle eibartarra Euskal herriko selekzioa ordezkatu duen hirukotearen parte izan da, Mariano Cerdá eta Ezequiel Salmonte bizkaitarrekin batera. Christian gerriko beltza 1. Dan-a da eta taekwondo klaseak ematen ditu Eibarren, Elgoibarren eta Ermuan. Euskadiko selekzioa hirugarrena izan zen taldekako formetan eta borroketan eta bigarrena teknika bereziak erabilitako apurkete-

tan: azken modalitate honetan nabarmendu zen eibartarra, bi metro eta 30 zentimetrora kokatutako egurrari jauzi egin eta emandako ostikadekin.

Garapen fisikoan eta intelektua-lean sakonduz, autodefentsarako egokia den kirol hau praktikatu nahi baduzu, aukera duzu Eibarren: astelehenetan eta eguaztenetan, 18.00etatik 19.00etara eta martitzen eta eguenetan 11.00etatik 12.30etara Ifar Kaleko 3 zenbakiko TX4 Fitness gimnasioan. Lehenengo klasea doan eskainiko zaizu.

Javi González nagusitu zen berriro Casinon

CASINO ARTISTA EIBARRÉS-EN JOKATUTAKO HIRU BANDAKO BILLAR TXAPELKETAN, Javi Gonzálezek berriro erakutsitako nagusitasunak beste txapel bat eman zion, finalean hiru set irabazi eta bakarra galduta. Ricardo Ereña izan zen azpitxapeladuna 25. edizio horretan eta Sergio Boull-

sa eta Fernando Berriozabal sailkatu ziren ondoren.

Aldi berean jokaturako tute txapelketako finalean, Pepe López eta Jose Antonio Albizu, Inda eta Errasti baino gehiago izan ziren. Aurten, gainera, 100 urte beteko ditu Casinoak eta hainbat ekitaldi egingo dira hori ospatzeko.




Berriozabal, Boullosa, González eta Ereñak osatu zuten ohorezko koadroa.

Herriko hiru triatloilari sarituko dituzte bihar Donostian

ANE ZIARAN ONENA IZAN DA TRIATLOI EUSKAL-NAFAR ZIRKUITUKO MAILA ABSOLUTUAN.

Horrez gain, 23 urtetik azpiko mailan jardun izan duen Eibar Triatloi Taldeko ordezkaria Duatloi Zirkuituan ere txapeladuna izan da, maila absolutuan 6.a izateaz gain. Alejandro Altuna eta Andoni López bere taldekideak ere onenak izan dira, Beterano 2 mailan bata eta kadeteetan bestea, triatloi zirkuituan. Sariak bihar banatuko dira Donostiako Amara Plazan.



Andoni López onena izan da kadeteetan.

Rallysprint-a urriaren 27an

ESCUDERIA EIBAR-EK ANTOLATZEN DUEN PROBA BERRIAK bigarren edizioa izango du aurten, iaz lortutako arrakastaren ondoren. Oraingoan data aurreratzeko asmoa dute antolatzaileek, ia hilabete: iaz azaroaren 19an jokatu zen proba eta aurten urriaren 27a eskatu dute Arrateko igoeraren ordezkariak ematen duten lasterketa berrirako.



Urrezko lau domina Espainiako wu-shu txapelketan

TTATT GIMNASIOKO ORDEZKARIEK BIKAIN JARDUN DUTE BERRIRO ERE MADRILGO Villaviciosa de Odónen jokaturako Espainiako wu-shu txapelketan eta, horrela, Euskadiko taldearekin parte hartu duten Mikel Astigarragak, Miren Vidalek, Jon Hernándezek eta Rodríguezkek urrezko domina bana eskuratu zuten. Erick López gure herriko bosgarren ordezkariak brontzekoa lortu zuen.

Nafarroako Murieta herrian bizi bada ere, eibartarra da jaiotzez eta bihotzez Mireia Navas. Joan den zapatuan bere lehen eleberria aurkeztu zuen Portalean: 'El albergue de Moab'. Kontaketa laburra bezala hasi zena, barrenera begira egindako bidea jorratu du liburuan eibartarrak.



MIREIA NAVAS, idazlea:

"Idazteko, irakurtzea da elikagai onena"

- Nolako bidea egin duzu liburua idazten hasi eta lana kaleratu zenuen arte?

Bost urte dira liburua idazteko boligrafoa hartu nuela. Idazten hasteko arrazoiak herri txiki batera bizi izatera etortzean dago, lan finkoa laga ondoren. Istorio bat kontatzeko beharra neukan, bizitzan izandako bizipenak paperean islatzeko. Orriak betetzen joan nintzen: Lizarrako pasarteak, Santiagoko Bidea... kontatzen ditut.

- Zure helburua liburua idaztea izan zen ala idatzi ahala garatu zenuen ideia hori?

Kontaketa laburra izango zela pentsatzen nuen. Antzinarako kulturek dioten bezala, denbora sakratua da; eta nik zerbait badaukat, denbora da. Ez daukat bikoterik, ez seme-alabarik; goizetan denbora libreka daukat, eta idazten hasi nintzen. Antzinarako kontuak, Lizarraren gainean kontatzen zizkidatenekin hasi nintzen, eta hortik abiatuz nire bizitzan sakondu nuen, istorioa garatuz.

- Eleberriak Ane eta Ingrid ahizpak aurkezten ditu.

Eta bietako bat hil egiten da. Liburuaren atzealdean ipintzen dudanez, horrelako gertakizun dramatikoak gertatzen zaizkigunean barrura begiratzen dugu eta gauzak berriz planteatzen ditugu.

Orduan, Ingrid, protagonista, gelditu, bere buruari entzuten hasi eta iraganeke oroitzapenak berreskuratzen ditu. Bestetik, pertsonaiak ezagutuko ditu Urbanan eta, hortik abiatuz, istorioa luzatzen da: maitasun kontuak, antzinarako eskuizkribuak...

- Zein sentsazio duzu eleberria esku artean izanda?

Liburua abenduaren 23an eman zidaten eta demaseko emozioa egin zidan. Gauza ederra da, beti asko irakurri dudalako; izan ere, idatzi nahi baduzu, irakurtzeaz elikatu behar duzu. Liburua idaztea ametsa zen niretzat eta, egia bihurtzerakoan, oso pozik nago eta jaso dudana erantzuna oso positiboa izan da. Lan ona egin dudala sentitzen dut.

- Aurreko zapatuan Eibarren aurkeztu zenuen liburua. Nola joan zen ekitaldia?

Emozio handiz. Izan ere, bizitzaren lehen urteak dira garrantzitsuenak, zure barnean geratzen direlako. Sei urte dira Eibarren ez nengoela eta oso polita izan zen. Betiko lagunekin elkartu nintzen asko maite dudana herri batean. Nire gurasoek Iñaxio Jatetxea zeukaten, ezaguna zena, eta nik han begira pasatzen nituen orduak. Bada, neskato hori naiz ni.

18 urtetik beherako pianojoleak asteburu honetan Andoainen lehiatuko dira / LEIRE ITURBE




Piano-ikasleak, Coliseotik Andoainera

EMANALDI BIKAINA ESKAINI ZUTEN AURREKO ASTEBURUAN COLISEOAN, III. Eibarko Gazteen Piano Jaialdian parte hartu zutenek. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako piano ikasleek, Isabel Laspiur irakaslearen eta Musikum akademiako ikasleekin batera jardun zuten. Beroketa-ariketa modukoa ere izan zen kontzertua, bihar eta etzi 7. Andoingo piano jaialdian lehiatuko baitira denak, Bastero kulturean jokatu den 18 urtetik beherako pianojoleendako lehiaketan.


Antzerki Jardunaldien aurkezpena

MARTITZENEAN 11.00-ETAN, UDALETXEAN AURKEZTUKO DITUZTE Eibarko Nazioarteko XXXV. Antzerki Jardunaldiak. Aurten otsailaren 17an abiatuko dira Jardunaldiak eta, urteroko martxari jarraituta, martxoaren 31ra bitartean goi mailako antzezlanak ekarriko dizkigute antolatzailleek. Sarreraren alde aurreko salmenta Coliseoan egingo da, otsailak 11n 10.00etatik 16.00etara eta otsailak 12, 13, 18 eta 19an, 10.00etatik 14.00etara.



Alberto Egurrola Topalekuan

GAUR HASI ETA HILAREN 12-RA ARTE "MAIXUEN AZTERNAK JARRANTZEN" izenburuko erakusketan Alberto Egurrolaren marrazkiak eta margolanak ikusgai izango dira, astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Santa Ageda batzen


BIHAR SOSTOA ABESBATZAK KALEJIRA EGINGO DU, 19.00-ETATIK AURRERA, urteroko ohiturari jarraituta santaeskean ibiltzeko. Santa Agedari abesteko irteeran Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako hainbat trikitilarik lagunduko diete, eurekin bat egitera animatzen diren herritarrekin batera. Kalejira amaitzean, gainera, urteroko moduan salda eta txorizoa hartuta indarrak berreskuratzeko aukera izango dute, Auzokoak elkartekoek gonbidatuta. Aurten Txonta kaleko Edozer elkartean egingo



diete harrera. Iaz Bekuak elkartean izan zen ospakizuna eta datorren urtean Dorrepen. Bi horiekin batera, Erdibana, Urkusu-Gain, Denon Sahatsa eta Jaiki elkarrekin osatzen dute Auzokoak.

Sostoaz gain, asteburuan beste batzuk ere ibiliko dira

santaeskean: bihar bertan Kaletan Kantuzekoak kalejira abiatuko dira, 19.30etan Untzagan batu ondoren eta Eibar ko baserritar gazteak, bestalde, domekan 10.00etatik aurrea Mandiola eta Gorosta auzoetan ibiliko dira, trikitilariak eta bertsolariek lagunduta.



Latinamerikako doinuak Coliseoan

DATORREN ASTEKO BARIKURAKO, HILAREN 10-ERAKO LATINAMERIKAKO DOINUEI ESKAINITAKO jaialdia antolatu dute: Coliseoan 20.30etan hasiko den emaldia Ana Caballero gitarra irakasleak zuzenduko du eta honako hauek hartuko dute parte: Miren Basterretxea eta Ainhoa Larrauri gitarrojoleak, Nathali-Sebastian bikoteak (Cristina Rodriguezek txirularekin eta Miren Truebak eta Marta Zubiaurrek bibolinarekin lagunduta), Mikel Urkolak eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Mariatxiak. Sarrerak 3 eurotan ipiniko dituzte salgai, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago.

Industria-argazki lehiaketa


ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN ELKARTEAK INDUSTRIA ARGAZKILARITZARI BURUZKO Argazki Digitalen VI. Lehiaketa antolatu du. Gaia industria-argazkilaritza izango da, baina aurten, Armeria Eskolaren mendeurrena dela-eta, gai horri eskainitako sari berezia ere emango dute. Lanak euskarri digitalean (CDan, jpg formatoan, 600 pixeleko bereizmenarekin eta

gehienez 30x30 zentimetroko neurrian) aurkeztu beharko dira, zuribeltzean zein koloretan. Argazkiak otsailaren 24ra arte hartuko dituzte, Armeria Eskolan edo e-mailez (aaa@armeriaeskola.com). Irabazleak 700 euro jasoko ditu, bigarrenak 300 eta hirugarrenak 200. Ikasle-ohi onenarentzat 150 euroko akzesita egongo da eta mendeurrenaren sari berezia 700 eurokoa izango da.

La Oreja de Van Gogh kontzertuan

JAI PRODUCTIONS ENPRESAK APirilAREN 21-ERAKO KONTZERTUA ANTOLATU DU La Oreja de Van Gogh taldearekin. Donostiarrak Astelena frontoian izango dira "Cometas en el cielo" disko berria aurkezten eta sarrerak 25 eurotan ipini dituzte salgai, jaiproductions.net webgunean eta laster ohiko salmenta-puntuetan erosteko moduan izango dira: Eibarren Ipuuako Terraza, Caserio, Arno, Trinkete, Birjiñape eta Portalea tabernetan; Ermuan Xagua tabernan; Elgoibarren Lanbroa tabernan; eta Durangon Horse tabernan. Egunean bertan Astelena frontoiko leihatilan ere

ipiniko dituzte salgai, 30 eurotan. Kontzertua 22.30etan hasiko da eta ateak 21.00etatik aurrea zabalduko dituzte.



laburrak

PAILAZOAK GURASOAK BERBETAN-EKOENTZAT

Euskara praktikatzeko guraso euskaldun eta ia-euskaldunak elkartzen dituen egitasmoaren barruan, eskaintza berezia egingo die ...eta kitto!-k euren partaideei. Datorren otsailaren 12an, domeka, Pantxika eta Txinparta pailazoen ikuskizuna izango da Portaleko areto nagusian goizeko 11.30etan. 30 bat gonbidapen gorde dira ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideentzat. Egoitzatik (Urkizu, 11 solairuartea) pasatzen den bazkide bakoitzak 4 gonbidapen hartzeko aukera izango du.

ATE IREKIAK EUSKALTEGIETAN

Udal Euskaltegiak eta AEK-k, udalaren lankidetzaz eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, ate irekiak antolatu dituzte hilaren 7rako. Martitzenean 09.00etatik 21.00etara euskaltegi biak zabalik egongo dira nahi dutenak geletan sartu eta klaseak bertatik bertara ikusi eta jarraitu ahal izateko. Udal Euskaltegia Bista Eder kalean dago, Portalea eraikinean eta AEK, berriz, Sostotarren kalean.

ZAPATUKO IPUINA BIHAR

Aurreko asteburuan Miriam Mendoza ipuin-kontalariak eskaini behar zuen "Bazen behin..." izenburuko saioa astebete atzeratu zuten eta, beraz, bihar emango du umeen liburutegian, 18.00etan hasita. Kontakizunak 50 bat minutuko iraupena izango du eta 4-8 urte bitarteko umeentzat pentsatutakoa izango dela aurreratu dute. Sarrera doan izango da.


Kantatu eta euskera ikasi. Euskera ikasi kantatuz. Kantatzen ikasi euskeraz. Modu batean edo bestean, hori da HIAHOKA proiektuak eskaintzen duena. Euskera eta abestiak uztartuz, Mireia Otzerinjauregik klaseak ematen ditu Petra Elserren ekimenez sortutako proiektu honetan.

MIREIA OTZERINJAUREGI, kantu irakaslea:

“Kantatzen irakastea beti da pozgarria niretzat”

- Zertan datza HIAHOKA proiektuak?

Esan beharra dago, aurretik, proiektua ez dela nire ideia izan. Nik kantu klaseak ematen ditut eta ikasle bat etorri zitzaidan, Petra Elser. Alemaniarra da bera, baina euskeraz egiten du. Lantzean behin itzulpenak egiten ditu eta bere ideia zen euskal kantuekin euskera ikastea. Beraz, elkarrekin hasi ginen eta urtebete pasa zenean, esan zidan etorkinei euskerazko klaseak ematen hasi nahi zuela, uste zuelako kantuen bitartez oso egokia izango litzatekeela. Petraren ustea zen etorkinak ez zirela Euskaltegi batean ikasten hasiko, zaila egiten zaielako. Orduan, bera klaseak ematen hasi zen eta hilean behin ni joaten nintzen kantu klaseak ematera (Petrarekin ere kantuan aritzen ziren, baina berak printzipioz



hori irakasten ez duenez, ni hilabetean behin joaten nintzen). Gero, liburu bat egin genezakeela pentsatu zuen, beste irakasle batzuek erabil zezaten (Euskaltegietan, DBHko irakasleek...). Kantu-liburu bat, azalpenekin eta ariketak barruan dituen (gorputza, arnasa eta ahotsarentzako ariketekin, besteak beste). Horrela, euskera ikasten da kantuen bitartez, euskeraren doinua hartzen du ikasleak eta baita kultura ere. Gainera, modu alai eta ludikoan jarriko dira harremanetan hizkuntzarekin. Batzuei lotsa ematen die abesteak, baina saiatzen gara poliki-poliki lotsa kentzen (barreak).

- Non dago martxan proiektua?

Urnieta, Andoain, Billabona, Hernani, Lasarte-Oria, eta orain Tolosa eta Beasainen hasi behar dugu.

- Nolakoak izaten dira kantu klaseak?

Nik ematen ditudan klaseetan gorputza erlaxatzen hasten gara lehenik eta behin. Arnasarekin hainbat ariketa egiten ditugu ondoren, eta ahotsa eransten diegu ariketa horiei. Barre egiteko ariketak ere lantzen ditugu, negarra imitatzen dugu... ahotsa eta emozioa lotzeko ariketak, azken finean. Lotsa kendu edo askatzea da helburua. Azkenean, landu behar dugun kantuaren testua irakurtzen dugu ondo ahoskatuz eta hainbat ariketekin hori hobetzen goaz. Zailak diren esaldi edo berbak hartu eta lantzen ditugu eta kantuaren esanahia azaltzen ere



ahalegintzen gara. Klaseak dinamikoak egiten saiatzen gara, taldeka aritzen dira ikasleak eta batzuetan banan-banan ere zatiak abesten dituzte.

- Zein motatako jendea joaten da zure klaseetara?

Adin ezberdinetako jendea: klaseak ematen diren herrietan bizi direnak (etorkinak zein herri horietan jaiotakoak), kantatzen ikasi nahi duen jendea, euskera ikasi nahi dutenak...

- Euskeraz egiten jakin eta kantatzea nahi duen jendea etorri zaizue?

Bai, bai. Euren arazoa zen: “Inoiz ezin izan dut kantatu, desastrea naiz” (barreak). Jendea elkartzeko aitzakia da eta helburu bi ditu: bata, etorkinak integratzea, modu alaiarekin; eta bestea, hemengo jendeak euskal kantuak abestu eta kantatzen ikasi nahi badu, aukera hori ematea.

- Zer ekarri dizu proiektuak?


Niretzat kantatzen irakastea eta beste zerbait ona ematea beti da pozgarria. Klaseetan musika estilo ezberdinak jorratzen ditugu (jazz, pop, folk...), bakoitzaren eskeraren arabera laguntzen saiatzen naiz. Orduan, proiektu honetan nire beharra badute, ni pozik.

JUAN ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

(Pilar Ortizen alarguna)


2011ko abenduaren 5ean hil zen Benidormen, 84 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IZAR Vicuña Bilbao, martitzenian zortzi urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULEN, atzo bost urte bete zenduazena-eta. Patxo potolo bat danon partez, txapeldun!




Zorionak, JULEN Prieto, astelehenian sei urte egingo dozuzena-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, NAIA Herrero, martitzenian 9 urte bete zenduazena-eta. Gurasuen eta, batez be, ahizta Nagorearen partez.




Zorionak, ANARTZ, domekan zazpi urte beteko dozuzelako. Patxo haundixa famelixaren partez.




Zorionak, GARI, ederrori! Domekan hiru urte beteko dozuz, azkenian. Laztan haundi-haundi bat, maillia!



Zorionak, JUNE, domekan lau urte beteko dozuzena-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, EKAIN, astelehenian bost urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, UNAITxo Etxebarria Blázquez, urte honetan etxia zure poztasunarekin bete dozulako. Patxua aitaxo, amatxo eta Naiaren partez.



Zorionak, NAIA NILI, astelehenian sei urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, JUNE, domekan urtia beteko dozu-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UNAI, zure zazpigarren urtebetetizian. Askoi maitte zaittuen etxekuen partez.

JAIOTAKOAK

- Martin Astigarraga Arriola. 2012-I-16.
- Maialen Guinea Gómez. 2012-I-19.
- Zainab Samadi. 2012-I-20.
- Aratz Askasibar Fernández. 2012-I-20.
- Jurgén Sánchez Babarro. 2012-I-22.
- Mikel Beitia González. 2012-I-23.
- Nahia Garitagoitia Valor. 2012-I-23.
- Gabriel Santos Rodríguez. 2012-I-24.
- Jon Fernández Paredes. 2012-I-27.

HILDAKOAK

- M^a Teresa Arrizabalaga Alberdi. 95 urte. 2012-I-26.
- Felix Garate Azkarate. 85 urte. 2012-I-27.
- Vicenta Urkaregi Kareaga. 83 urte. 2012-I-27.
- M^a Angeles Axpe Casero. 84 urte. 2012-I-28.
- Juan Zelaia Aranburu. 88 urte. 2012-I-29.
- Andres Arrieta Irazabalbeitia. 85 urte. 2012-I-30.
- Melchor Martín García. 86 urte. 2012-I-31.
- Laura Gabilondo Muguruza. 2012-I-31.
- Amparo Zallo Suárez. 74 urte. 2012-I-31.
- Roberto Delgado Isasi. 75 urte. 2012-II-1.
- Marifeli Aierbe Zabaleta. 62 urte. 2012-II-1.



Zorionak, SUA eta NIKOLA, zuen seigarren urtebetetizian. Egunero irrifarr goxo bat marrazten deskuzuelako belarritik belarrira... Jarraitu holaxe!

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

3an: 22.30
4an: 17.00, 19.45, 22.30
5ean: 17.00, 20.00
6an: 20.30

"Another year"

Zuzendaria: Mike Leigh



(2 ARETOAN)

3an: 22.30
4an: 17.00, 19.45, 22.30
5ean: 17.00, 20.00
6an: 20.30

"Maktub"

Zuzendaria: Francisco Arango



(ANTZOKIAN)

3an: 22.30
4an: 19.45, 22.30
5ean: 20.00
6an: 20.30

"J. Edgar"

Zuzendaria: Clint Eastwood



(ANTZOKIAN)

4an: 17.00
5ean: 17.00

"Winx Club 3D"

Zuzendaria: Iginio Straffi



horoskopoa

ARIES

Kontu handiz ibili kalean, edozein momentutan ezusteko bat gerta dakizuke-eta. Begiak zabal-zabalik eduku beharko dituzu.

TAURUS

Asteburua atsedena hartzeko erabili, astegunetan lan ugari egin beharko duzu-eta, bai fisikoki, bai psikologikoki.

GEMINI

Nola jakin dezakezu pertsona horrek pentsatzen duen? Zu ez zaude bere buru barruan, utziz berari nahi duena egiten.

CANCER

Noiz egingo dituzu aspaldian lagunei agindutako gauzak? Datorren astea une ederra izango da. Lagunak pozik lagako dituzu.

LEO

Non geratu dira urte berriarekin egindako promesak? Hilabete ere ez du iraun kirola egiteko nahiak. Alperrentzi hori!

VIRGO

Asko gozaten duzu jakiak dastatzen, baina datorren astean beherakoa izango duzu eta arroz izango da zure menu bakarra.

LIBRA

Istorio bitxia gertatuko zaizu asteburuan. Emakume zahar bat, pilota bat eta motxila gorri bat... zer ote da gertatuko zaizuna?

SCORPIUS

Egindakoak ez dauka atzera bueltarik. Ondo edo txarto egin, aurrera egin beharko duzu hartutako erabakiarekin. Ez etsi!

SAGITTARIUS

Saltsero hutsa zara. Guztietan hartu behar duzu parte; ezin duzu ekintzarik galdu. Agenda ondo prestatu datozen egunotarako.

CAPRICORNIUS

Hotzari aurre egiteko modurik onena aurkituko duzu asteburuan: beste pertsona baten besoetan erortzea. Zu bai zu azkarra!

AQUARIUS

Bila eta bila zabilta, baina zeren bila? Zeuk ere ez dakizu-eta! Zerbaiten bila ibiltzeko, lehenik helburu bat izan behar duzu.

PISCIS

Gauzak ez dira zuk nahi bezala irtengo datorren astean, baina gauza asko ikasiko dituzu. Esperientzia hartuko duzu hortik.

Zapatua 4

KOKO-DANTZAK

08.30.- Koko-dantzak eta koko-eskea. Kezka dantza-taldearekin eta La Lachera, Rocca Grimaldiko (Italia) inauteria. Hasiera Merkatu Plazan eta handik baserrietara kalejiran (Arrate-balle), 16.00ak arte. **19.00.-** Eibarko erdialdeko kaleetan kalejira.

EZTABAIDA

12.00.- "Matsarian zerbait gertatzen ari da" erakusketari buruzko eztabaidak eta ondorioak aurkeztea. Portalean.

TAILERRA

17.00.- Birziklapen tailerra. Indianokua gaztelekuan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- "Bazen behin...", Miriam Mendoza ipuin kontalariarekin. 4-8 urteko umeentzat. Iraupena: 50 minutu. Liburutegian.

HITZALDIA

18.00.- "Nola eragiten dio alkoholismoak familiarri", Al-Anon elkartearen eta psikiatra baten eskutik. Sarrera irekia. San Andres elizako lokaletan.

SANTA AGEDA

19.00.- Santa Ageda batzen Sostoa abesbatzaren kalejira.

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen irteera, Santa Ageda dela-eta. Untzagatik hasita.

Barixakua 3

DOKUMENTALA

22.00.- "Move" dokumentala: Philadelphian 1972an sortutako beltzen askapenerako talde txiki baten inguruko istoria. Gaztetxean.



Domeka 5

SANTAESKEA

10.00.- Baserriar gazteen santaeskea, bertsolari eta trikitilariak lagunduta, Mandiola eta Gorosta auzoetako baserrietan.

TAILERRA

17.00.- Birziklapen tailerra. Indianokua gaztelekuan.

Martitzena 7

ATE IREKIAK

09.00/21.00.- Udal Euskaltegiak eta AEK Euskaltegiak ate irekien jardunaldia hartuko dute.

IKASTEN

10.00.- "Pasaiaiko portuaren handitze egitasmoa eta ondorio ekologikoak", Castor Garateren eskutik. Armeria Eskolan.

AURKEZPENA

11.00.- Antzerki Jardunaldien aurkezpena. Udaletxean.

YOGA IKASTAROA

18.30.- Yoga ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

Eguaztena 8

IKASTEN

10.05.- Ibilaldia: Olatz (Mutriku) inguruan ibilaldia (4'5 km.). Otordurako janaria norberak eraman beharko du. Mutrikura joateko autobusa Ego Gaineko geltokitik irtengo da (Urkizuko geltokitik 10.08etan).

Eguena 9

JARDUNALDIA

09.30.- "Enplegurako formakuntza berbetan", Lanbide Heziketa integratuaz. Armeria Eskolan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Son of Babylon" (Zuz: Mohamed Al-Daradji). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

YOGA IKASTAROA

18.30.- Yoga ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

SUDOKUA

8	5		1	4			3
		4		6			2
				2	7		
2	8	9					1
5					3	4	8
	1	3					
3		4		9			
6		2	1		3	4	

DENBORAPASAK

6	7	9	1	0	3	4	2	5
2	8	1	5	7	4	3	6	9
5	3	4	2	9	6	8	7	1
9	5	3	4	8	1	2	8	7
7	1	2	0	3	9	5	4	6
4	6	8	7	5	2	9	1	3
3	9	7	6	4	8	1	5	2
8	2	6	3	1	5	7	9	4
1	4	5	0	2	7	6	3	8

AURREKOAREN EMAITZA

eguraldia
(EUSKALMET.NET)



**HURRENGO EGUNETARAKO IRAGARRITAKO
TENPERATURAK (MAXIMOAK ETA MINIMOAK)**

barixakuan	-1	-3	martitzenean	-3	-6
zapatuan	3	-6	eguztenean	-2	-4
domekan	7	2	egunean	10	-3
astelehenean	3	-3	barixakuan	11	10

Siberiatik etorrita, gurean sartu den hotz handi hori dela-eta, hona hemen hurrengo egunetarako Eibarren aurreikusten diren tenperaturak: gaurko eta biharkoekin batera, azpimarratzekoak dira datorren asteko martitzenekoa eta eguztenekoa.

erakusketak

- Otsailaren 4ra arte
"MATSARIAN ZERBAIT GERTATZEN ARI DA". Portalean.
- Otsailaren 5era arte
"ETXEBERRIA: LEHEN URTEA". Portalean.
- Otsailaren 12ra arte
ALBERTO EGURROLAren "Maixuen aztarnak jarraitzen" marrazki eta margoak. *Topalekuan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Baltiko" argazki erakusketa. *Debako Turismo Bulegoan.*
- Otsailaren 29ra arte
MIGUEL QUIRÓSen argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- MARIAN ARETXABALA**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

lehiaketak

- **Toribio Etxebarria Sariak.**
Gaia: Enpresa ideiak eta proiektuak. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 7ra arte*, www.bicberrilan.com helbidean.
- **Marrazki lehiaketa.**
Gaia: Aratosteen inguruko marrazki lehiaketa (14 urtera arteko umeentzat). Marrazkiak Errebal-lbarkurutze inguruko dendetan eta tabernetan hartuko dituzte, *otsailaren 13ra arte*, eta parte-hartzeileen artean opari-zozketa egingo dute.
- **Laztan lehiaketa.**
San Balentin egunaren ingurukoa. Non: El Corte Inglés-ean argazkia ateratzeko photocall-ean (otsailaren 11ra arte). Lanak aurkeztea: *Otsailaren 13ra arte*, sanvalentineibar@elcorteingles.es
- **Aratosteetan dotoreen apaindutako taberna.**
Izen-ematea eta informazioa: *Otsailaren 16ra arte*, Pegoran.
- **Portada lehiaketa.**
XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 28ra arte*, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).
- **Industria-argazkilaritza.**
Gaiak: Industria-argazkilaritza eta Armeria Eskolako Mendeurrena. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 24ra arte*, Armeria Eskolan edo aaa@armeriaeskola.com helbidean.
- **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**
Lanak entregatzea eta informazioa: *Martxoak 20ra arte*, Arrate Kultur Elkartearen.

telefono jakingarriak

SOS delak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Tel. 685-728995.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztatua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 56 m². Igogailua. 168.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-734000.
- Pisua alokagai Eibar erdialdean. Erabat berriztatua. 120 m². 900 euro. Tel. 670-779713.

1.3. Konpartitzeko

- Pisua konpartitzeko emakumea behar da. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Ubitxa behean. Tel. 617-688311. Maria.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Arrate-Biden. 1. solairuan, itxia eta autoa garbitzeko tokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
- Ileapaindegi berria alokagai, arazo personalengatik. Merke. Tel. 667-806737.
- Garaje itxia alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-236564.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Externa. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-273664.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-376387.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Egun osoroko edo orduka. Tel. 634-007292.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-474923.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 648-603029.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-529165.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-303534.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 646-887739.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-887814.

- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 633-150376.

- Mutila eskaintzen da dendako saltzaile, garbitzaile edo pintore jarduteko. Tel. 622-139912.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-306518.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Orduka edo interna. Tel. 659-908513.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.

- Neska eskaintzen da tabernak, soziedadek edo etxeak garbitzeko. Tel. 638-527489.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo jornada osoz. Tel. 638-338816.

- Ileapaintzailea eskaintzen da ileapaindegi mistoan lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.

- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-929348.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 652-248893.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-973549.

- Neska euskalduna eskaintzen da ileapaindegian lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-096417.

- Ileapaintzailea eskaintzen etxez etxe nagusiak orrazteko. Tel. 627-855223.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o eta sukaldaria behar dira Arrateko jatetxe batean. Nahitaezkoa esperientzia. Tel. 656-752658.

- Sukaldaria behar da taberna baterako. Tel. 629-354370.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ordenagailua erabiltzen irakasten da. Word, Accel, Excel, web orriak egiten ikasi etabar. Merke. Tel. 679-740061.

- Bibolina jotzen irakatsiko nuke asteburuetan. Metodo erraza eta dibertigarria: solfeo edo solfeorik gabe. Adin guztiak. Asteburuetan. Merke. Tel. 679-740061.

- Euskarazko klaseak ematen ditut, azterketarako: EGA, perfilak, Habe-ren mailak. Tel. 620-608065.

- Klase partikularrak ematen dira: Euskara, Matematikak, Fisika, Kimika. Talde txikiak. Tel. 699-069080.

- Irakasleak maila guztietako klase partikularrak ematen ditu. Lau laguneko taldeak. Talde berriak urtarilean. Tel. 685-739709. Patrizia.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Egurrezko trona (silla eta mahaia bihurtzeko gai), autoarendako segurtasun-aulkia (9tik 25 kilora), bidaia-sehaska eta bizikleta (3 urte) salgai. Merke. Tel. 617-256466.

- "Sendra" botak salgai. 38 zenbakia. 50 euro. Tel. 699-532243.

- Errepideko bizikleta salgai. Zeus Shimano 105, karbonozko urkilekin. 2.000 km. Tel. 628-714824.


- Bizikleta estatikoa salgai, programekin. Oso egoera onean. 170 euro. Tel. 628-714824.

6.2. Eman

- Artzain txakur-kumeak oparitzen dira. Abenduaren 23an jaiotakoak. Tel. 600-464625.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Border Collie arrazako txakurra desagertu da, orain dela astebete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. Tel. 629-588627.



6.4. Bestelakoak

- Zure elkarte gastronomikoan bazkide berria behar baduzu, deitu. Tel. 646-293311.

www.irazabal.net



Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

%5^{eko}
DESKONTUA

SUKALDE/BAINUGELA
erreformetan
(IGELTSERITZA lanetan)
maiatzaren 31ra arte



IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA




KALITATEZKO OBRAK

- Sukaldeak, komunak edo etxe osoak
- Teilatuak, inpermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR




Zuk uste baino hurbilago,
nahi bezain urrun
hel daitezten.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**Nahi bezain
URRUN HELTZEKO.**
Heziketa ZIENTIFIKOA.
Heziketa MODERNOA.
GIZA heziketa.
**HIRU HIZKUNTZAKO
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94



AMAÑA

943 20 72 50

Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era

2012
2013
IKASTURTEA




ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78